

MUNITIBARKO UDALAREN ETXEGABETZEEN KONTRAKO PROTOKOLOA, 2013ko martxoaren 20an ONARTUA

Protokolo honek neurri zehatzak biltzen ditu eta bi helburu ditu: Batetik, egoera larri honen aurrean daudenei laguntza praktikoa ematea eta era berean, etxegabetzeen sistema bidegabeari aurre egitea.

- Horrela bada, ezinbestekoa deritzogu, gure herrian etxegabetze bat dagoenean honako protokolo hau jarraitzea:

1. Instituzioen eta etxegabetzeen aurka ari diren eragileen arteko elkarlana bultzatuko da. Horretarako udala eta eragileen arteko harremana iraunkorra izango da.

Beharrezkoa ikusten den kasuetan, etxegabetzeen gaiaren lanketarako, udal batzorde berezi bat antolatzeke aukera irekia geratzen da.

2. Udala, herrian ohiko etxebizitzaren etxegabetzeak jasan dituzten edo jasateko arriskuan dauden herritarrei irekita dago. Egoera hori nozitu duten edo arriskua duten herritarren informazioa jasotzea ezinbesteko du udalak, ekinbideak martxan jarri ahal izateko.

- Horretaz arduratuko diren hautetsiak izendatzen dira:

- Kaltetuek ondoko telefonoa edo mailak erabil dezakete arduradunekin arremanetan jartzeko

Telefonoa:

Mail-a: -----

Hala eskatzen duten kaltetuek, diskrezio osoa izango dute Udalaren aldetik.

3. Udalak, herritarren aurkako etxegabetze prozedura martxan duen bankuarekin harreman bidea irekiko du, honako helburuekin:

- Etxegabetze prozedura denbora mugagabeen bertan behera uzteko exijitzea
 - Kaltetuaren aldetik dagoen proposamen oro bankuari bideratzea.
4. Udalak, etxegabetzeen gaiarekin duten jarreraren arabera kreditu entitateekin duen harreman instituzionala, ekonomikoa eta elkarlana berrikusi egingo ditu:

Etxegabetzeak gauzatzen dituzten eta egiten ez dituzten entitate finantzieroen arteko sailkapena egingo du Udalak eta etxegabetzeak egiten dituzten banketxe horiekin harremanak etetea aztertuko du.

5. Udalak, herritarren jakinaren gainean utziko du etxegabetzeen gaiaren aurrean Banku, Kutxa edo Kooperatiba bakoitzak duen jarrera.
6. Udalak, ohiko etxebizitzaren etxegabetzea nozitu duten herritarrei, etxebizitza eskubidea onartua izan dezaten, informazioa, laguntza juridikoa eta lehen arreta eskainiko die.
7. Ohiko etxebizitzarik gabe geratu diren herritarrei premiazko irtenbidea emate aldera eta alokairu soziala erreferentzia nagusitzat harturik, Udalak,
- Etxebizitzaren eskumena duten erkidego eta foru entitate publikoekin elkarlana bultzatuko du.
 - Hainbat etxebizitza hutsik dituzten banku eta higiezin enpresei ardura exijituko die.
8. Herrian etxegabetze prozedura bat gauzatzen den bakoitzean, egunean bertan, Udalak herri eragileekin batera, etxebizitza eskubidearen alde eta etxegabetzeen aurka, konzentrazioa egingo du herriko plazan.